



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Artearen Historia

**USE 2024**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

**ARTEAREN HISTORIA**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**HISTORIA DEL ARTE**

***Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea***

### **AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK**

***Proposatutako sei ariketa hauetako HIRU egin behar dituzu.***

- Ariketak bi multzotan banatuta daude:
- **A multzoa:** 4 gai ditu, eta **BAT** garatu behar duzu (5 puntu balio du).
- **B multzoa:** 4 irudi ditu, eta **Blren iruzkina egin behar duzu** (bakoitzak 2,5 puntu balio du).

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

**ARTEAREN HISTORIA**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**HISTORIA DEL ARTE**

## A MULTZOA

Garatu gai hauetako **BAT** (5 puntu):

1. Erromatar arkitektura eta haren ekarpen nagusiak. Erromatar hirien urbanismoa eta arkitektura zibila atal nagusizat.
2. Arte gotikoa hiriko gizarte berriaren eta espiritualtasun berriaren isla gisa. Katedral gotikoa hiriaren harrotasun gisa eta arteen integrazioaren adibide. Eskulturaren bilakaera portada monumentaletan.
3. XVIII. eta XIX. mendeen artean: Francisco de Goyaren pintura, garaiko joera nagusien sintesi eta ondorengo mugimenduen aitzindari.
4. Postinpresionismoa eta ikerketa piktorikoaren lerro berriak. Kolorea eta forma pinturaren ezinbesteko osagai gisa. Neoinpresionismoa eta pinturarekiko ikuspegi analitiko eta zientifikoa.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

**ARTEAREN HISTORIA**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**HISTORIA DEL ARTE**

Egin irudi hauetako **Biren** iruzkina (2,5 puntu bakoitzak):

**Polikleto Argoskoa**



*Doriforoa*

**Sandro Botticelli**



*Venusen jaiotza*

**Berthe Morisot**



*Sehaska*



*Eiffel dorrea*



### GAIETARAKO ZUZENKETA ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Ondo bereizten ditu, garai edo artista bakoitzak sortutako arte adierazpenak, eta ondo zehazten ditu horien estiloa, kronologia eta bilakaera. **(1.50 puntu bat gai bakoitzeko)**
2. Gaiari ondo heltzen dio eta dagokion garaian garatzen du. Adierazpen argiak egiten ditu, terminologia artistikoa modu egokian erabiltzen du eta ez du errakuntzarik. **(1.50 puntu gai bakoitzeko)**
3. Galderak dituen alde guztiei erantzuten die (forma-estilo ezaugarriak, aurrekariak eta geroko eraginak...) eta egokiro balioesten du beren lanetan planteamendu berriak garatu dituzten artisten edo bide artistiko berriak ireki dituzten artisten protagonismoa. **(1,50 puntu gai bakoitzeko)**
4. Ondo lotzen ditu estilo-mugimendu artistikoak, artistak eta adierazpen artistikoak faktore ideologiko, ekonomiko, politiko kultural eta sozialekin. **(0.50 puntu gai bakoitzeko)**

### IRUDI IRUZKINEN ZUZENKETA ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Artelana edo artista dagokion arte-estiloan, mugimenduan edo garaian kokatzen du, dituen ezaugarri propioak bereiztuz **(0.75 puntu irudi bakoitzeko)**.
2. Obra edo artisten alderdi tekniko, formal edo esanguratsuak aztertzen ditu. **(0.75 puntu irudi bakoitzeko)**
3. Adierazpen argiak egiten ditu, terminologia artistikoa modu egokian erabiltzen du eta ez du errakuntzarik. **(0.50 puntu irudi bakoitzeko)**
4. Ondo lotzen ditu garai bateko lan eta artista garrantzitsuak aurreko edo ondorengo aldikoekin **(0.25 puntu irudi bakoitzeko)**
5. Ondo lotzen ditu artelana eta artistak, dagozkion faktore ideologiko, kultural, erlijioso, politiko-sozial eta ekonomikoekin **(0.25 puntu irudi bakoitzeko)**